


Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 28a / 591. zenbakia



Industria erakusketa

Debagoiena, giza abentura tradiziotik berrikuntzara

ORAIN ETA HEMEN: DOMEKAN, NOIZKO? EGUNA ARRASATEN/7 • JAIK: SANJUANEN GAINBEGIRATUA/11-14

Edertasunaren Gida

**A
U
SART**

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea, 24.
Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

SUSi

ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea
Tel.: 943 79 50 27

Jose Antonio

GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA

Otalora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

JADE

ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

ILEA

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

Lore



Olarte, 10 • ARRASATE • ☎ 943 79 32 50

Lurrindegia eta estetika zentroa

KORAONEAL Ayer HR CLARINS BOTHERM VALMONT

aitor

Gizonezkoen ile apaindegia

Otalora, 14 • 20500 ARRASATE

Tel.:
943 79 01 39
615 78 19 63

Gida honetan azaltzea nahi baduzu, deitu ezazu 943 71 23 91 telefono zenbakira.

KALEINKESTA/ Uda partien kirol berezirik egitten dozu?



LUIS POLO
Langillie



AINHOA PÉREZ
Langillie




ZIGOR ORUNA
Langillie



XABIER BARRERE
Iksaliek



RAQUEL GONZÁLEZ
Iksaliek



MAITE ITURRARAN
Iksaliek

Ez dot egitten kirol berezirik. Urtien ziber bizikletan ibiltzen naz, baiñe udan, egunak luziagoak die eta gehixago aprobeztetan ditudut. Bestela, gimnasio apur bat be egitten dot.

Ez, udan ez dot kirol berezirik egitten. Beruek galbanie emuten dust, eta ez dot kirol askorik egitten. Hondartzara jueten naz, baiñe igeri baiño gehixago, uretan jolastu egitten dot.

Jeneralien, mendira jueten naz, baiñe oin dala gutxi alaba euki dogu eta ez dauket gauza askorik egitteko denporarik. Palan be jokaketan dot, baiñe urte osuen, ez udan bakarrik.

Ez. Udan, kirola egittie gehixago kostatzen jat. Asko izerdiketan dot, eta kantsau be lehenago kantsetan naiz. Gurago izeten dot kirola neguan egittie, gutxiago sufriduten dot.

Bai. Negu partien, ikesi beretik ez dot egitten, eta uda aillegetan danien, kirol apur bat egitteko aprobeztetan dot. Igeri apur bat, korrika apur bat... Uda aprobeztetako dago.

Urte osuen egitten dot kirola, eta ez dot uste udan kirol berezirik egitten dotenik. Udan, futbolien jokatu eta igeri apur bat be egitten dot, baiñe biher haundirik be ez daukot.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ITURRIARI XABOIA BOTA Jaiegunetan gehienok aztoratu samar ibiltzen garen arren, irakurle batzuek gaizki hartu dute aste honetan gertatutakoa. Ezezagun batzuek gaztetxe ondoko iturriari xaboa bota zioten. Horren ondorioz, xaboiak edo dena delakoak urari izugarritzko bitsa eragin zion eta horrela aurkitu genuen biribiluneko iturri ezagun hori. Ai, ganberroak!

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KIROLA / 9

KULTURA / 15

Kolektorearen lanak

Zirkulazioan, zabor-bilketan eta herri autobusean aldaketak izan dira kolektorearen lanengatik.

Ikusle gutxi Uarkapen

Zapatuan, nahi beste pilota txapelketa izan ziren Uarkapen, baina jende gutxi izan zen.

Karkabalek 25 urte egingo ditu

Karkabal elkarteak 25 urte egingo ditu uztailaren 7an. Liburua eta Aste Kulturala prestatu dituzte.

ASTEKODATUA

14

ELKARTE EUSKALGINTZAREN PLANA LANTZEN ARI DIRA

Arrasateko hamalau talde eta elkarte Arrasateko euskalgintzaren Plan Estrategikoa lantzen dabilta. Herriko esparru guztietan euskaraz normaltasunez bizi izatea gura dute.

BESTEKEESANA

“ Herrialde eta enpresa askotan ez dira lanarekin lotutako istripu eta gaixotasunak ezagutzera

ematen. Eta, kasu gehienetan, istripuek arriskuan jartzearekin harreman zuzena daukate. Aldiz, gaixotasunen kasuan, horien eta arriskuaren arteko harremana frogatzea askoz zailagoa da (...) Kooperatibetan, laneko gaixotasunak onarpen legal eskasa dute. Ez Lagun Arok, ezta kooperatibek ez dute lan gaixotasunen gaineko definizio zehatzik. Ez dago horiek zehazteko zerrendarik, baina Prebentzio Legea (3. Art.) derrigorrez bete beharrekoa da (...) Lan gaixotasunen onarpen legalak kooperatibetako langileek zein gaixotasun sufritzen dituzten jakitea ahalbideratuko luke...”

MIKEL OLABE
T.U. LANKIDE/02-06-01

HERRITARREN BERBAK/ Antxon Mendizabal



Ekonomia berria

Gizartearen eraldaketa nahi dugunok birkalkatu behar gara ekonomia berria. AEBetan 76 miloi lagunek burtsan jokatzeko dute, tartean, langile multzo handi batek. Familien %42 inplikaturik dago. Ingalaterran sartu eta Europar ere hedatzen ari da ekonomia berria.

Orain 30 urte, muntaketa-katean oinarritutako sistema produktiboa "produktibitatearen hazkundera" geneukan pilaketaren oinarri. Banaketarako erakunde sindikalak eta hitzarmen kolektiboak ahalbideratzen ziren. Nazio-estatuaren eremuan estatuak kontrolatzen zuen bilakaera ekonomikoa, eskaria publikoa garatuz, prezioak kontrolatuz eta gizartea arautuz.

Ekonomia berria ordea, nazioarteko merkatuak ezartzen ditu prezioak. Produktibitatearen igoera berriak lanaren antolaketan, enpresaren eraldaketan, eta malgutasun

produktiboan gauzatzen dira; kostuak gutxituz. Kapital finantzarioak estatu aurreratuak dominatzen ditu eta, planeta osoan, dibidenduak, interesak, eta aktibo finantzarioen errentak bermatu nahi ditu. Akzioen errentagarritasuna hazkundera ekonomikoaren

“Ekonomia berria, nazioarteko merkatuak ezartzen ditu prezioak, eta kostuak gutxitu egiten ditu”

faktore zentral berria bihurtu da. Partehartze produktiboarekin batera, kapital sozialerako langileen partehartzea gero eta hedatuagoa dago. Ekonomia berria, langileriaren zati handi batek, interesak eta dibidenduak

eskuratzen ditu, bere soldata kapital errentarekin osatuz. Langile-akziodun sektore honek kapital finantzarioaren logikan integratzen du bere jardura ideologiko eta politikoa. Eskubide unibertsalak zirenak merkantziak bihurtzen dira. Akzioaren errentagarritasuna da ekonomia berriaren helburua. Eta enpresaren gobernu demokratikoak progresiboki hitzarmen kolektiboak ordezkatzen ditu.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 28**
Azkoaga, Iturriotz 943 79 79 99
- ZAPATUA, 29**
Corcuera, Aranbarri 943 79 09 74
- DOMEKA, 30**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 1**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- MARTITZENA, 2**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 3**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUENA, 4**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERITXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguualatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

ODOL ATERATZEA
Datorren uztailaren 2an eta 3an etorriko dira berriro ere Arabako Odol Bankuko Elkarteko anbulatoriora. Arratsaldean izango dira anbulatorioan, 16:15etik 20:00ak arte, hain justu ere.

INDUSTRIA ERAKUSKETA
Dagoeneko zabalik dago Industria Erakusketa. Iraganean Union Cerrajera-ko egoitza nagusia zegoen lekuan, egungo Saiolanen, jarri dute. Orduetgia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta domeketan eta jaiegunetan, 10:00etatik 14:00etara.

NOIZKO? EGUNA
Gaur, egubakoitza, Noizko? Eguna izango da Arrasaten. Baldintzapeko askatasunean egon beharko luketen preso guztien senitartekoak etorriko dira herrira.

AHT-REN AURKAKO IBILBIDEA
AHT Gelditu! Elkarlanak AHTk kaltetuko dituen herrietatik ibilaldia antolatu du. Astelheanean, 17:30ean, Arrasatera helduko da. Udala plazan ongiatorria egingo diote eta Seber Altubera joango da, txalapartariak, malabaristak eta danborrariak lagun.

AEDrenAGENDA

UDAKO AUZOLANDEGIAK
AEDk auzolandegiak antolatu ditu uztailaren 5etik 15era. Kanboko Salvador Ikastegira joko dute, eta han hormak konpondu eta margotuko dituzte, besteak beste. Hamasei urte baino nagusiagoek lan egin ahal izango dute auzolandegian. Interesatuok izena eman lehenbailehen AEDn.


URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obeneireka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Hogeita hamar mutiko I. Saskibaloi Jardunaldietan

Astelheanean hasi eta uztailaren 10era arte, Arrasate Saskibaloi Taldeak antolatutako Saskibaloi Jardunaldiak izan ziren Musakolako kiroldegian. Hiru taldetan banatuta, Arrasateko, Aretxabaletako eta Elgoibarko hogeita hamar bat mutiko ibili ziren saskibaloian.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Tripazilla"



Zilborrari deitzen zaio tripazilla.

GORKA ORTEGA


HAUGIROA!

MINIMOA Astelhehena, 24	14 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 21	28 °C
ASTEKO EURIA (l/m ²)	9,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 19	22 °C	17 °C	1,6 l/m ²
Eguena, 20	18 °C	14 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 21	28 °C	15 °C	- l/m ²
Zapatua, 22	28 °C	14 °C	0,6 l/m ²
Domeka, 23	19 °C	16 °C	4,1 l/m ²
Astelhehena, 24	16 °C	14 °C	3,5 l/m ²
Martitzena, 25	24 °C	14 °C	-

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Deiane Arrieta eta Mikel Aranburu, udako esatariak.

Udan, berrikuntza ugari!

Astelhehenetik aurrera, udako aurpegiak esnatuko zaitugu! 09:00etan, neguko jantziak erantzi eta eguneko berriak, hitzorduak, elkarrizketak, Joxe Landaren eguraldi iragarpena eta beste sorpresa pila bat eskainiko dizkizuegu. Guztiak ere, fresko-fresko! Uztaileko, baina, fitxaketa bi egin ditu Arrasate Irratiak: Mikel Aranburu eta Deiane Arrieta. Esatari bikote horrek jairik jai eramango gaitu, baita hondartzetara eta igerilekuetara ere.

Neguari azken begiratua Arrasate Irratian, zapatuan eta domekan, 11:00etatik aurrera

Neguko saioei agur esan genien udan sartu orduko, baina asteburuan, ikasturte honetako hainbat une gogoratuko ditugu. Hainbat eta hainbat izan dira aurten gure estudiantik pasatu direnak. Horrela, bada, besteak beste, Bixente Etxabe artzaina, Xanti Iparragirre bertolaria eta EPAko ikasle helduekin izandako elkarrizketak eskainiko dizkizuegu.

Bestalde, Mexikora eta Australiara bidaia egingo dugu, Gurutz Garmendiarekin eta

Aimar Elortzarekin.

Begiratua biribiltzeko, libururu bi gomendatuko dizkizuegu: Badiharduguren *Deba ibarretik euskeraren herrira* eta Jose Antonio Azpiazu onatiarraren *Picas vascas en Flandes*. Azken horrekin ibarreko armagintza ikasiko dugu; izan ere, XIV. mendearen sekulako garrantzia zuen Arrasateko altzairuak eta oso estimatua zen Estatuan. Lasai-lasai irakurtzeko, Van Morrisonen eta Alex Ubagoren diskoak entzungo ditugu.

ASTEABIHITZETAN

Disko Festa arrakastatsua

Martitzenean, Disko Festa izan zen herriko plazan, Joseina Etxeberriak aurkeztuta. Euskadi Gazteko lagunek ederto asmatu dute formatu berri horrekin; izan ere, plazan jende mordoan egon zen. Adin guztietako jendea hurreratu zen herriko plazara Euskadi Gazteko esataria zuzen-zuzenean ikustera, eta Joseinak lan horretan bikain pasatzen duela erakutsi zuen. Plazara hurreratutako herritarrek berotzea lortu zuen, eta udan askotan entzungo ditugun abestiak izan ziren entzungai. Argi dago gainerako herriko jaietan ere arrakasta izango duela.

Mariachiak Monterronen

Martitzen gauean herriko plazan jende asko elkartu zela esan dugu, baina mexikarren musikaz gozatzea aukeratu zutenak ere asko izan ziren. Monterron parkean hainbat ekintza izan dira sanjuanetan, baina Los Pérez de Nochistlán mariachi taldeak bakarrik lortu zuen Monterrongo parkea betetzea.

Monterronen sekulako giroa izan zen, eta eguraldiak ere asko lagundu zuen. Jendeak abestu eta dantza egiteko aukera ere izan zuen. Argi dago mexikarren musika entzuteko arrastarrak irrikan egoten direla.

Dragoi Jana Uarkapen

Astelehenean, herritarrek aurtengo dragoi txuletak dastatzeko aukera izan zuten. Sanjuanetan eguraldiak ez du askorik lagundu, eta urtero moduan Dragoi Jana herriko plazan egin behar bazen ere, euria zela-eta, Uarkapera joan behar izan ziren. Hala ere, oso afari jendetsua izan zen, eta giro polita izan zen. Aurtengo dragoiak ere zapo ezin hobea zeukan, eta Uarkapera hurreratu zirenak bapo afaldu zuten eta ikuskizunekin gozatu ahal izan zuten.



Bigantxetan jende asko

Ezin esan aurtengo sanjuanak oso jendetsuak izan direnik, baina goizero-goizero jende asko izan da bigantxetan. Beste behin, zezen-plazara gaupasa eginda joan direnek jarri dute saltsa, baina aurtun ere gatzetxo asko izan da. Batzuen kontura barre ederrak egin dituzte askok.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Gora San Juanak!

Jaiak bukatu dira. Herriko jai nagusiak izanda, herriko beste jai batzuekin alderatuz, herritarren presentzia eta parte hartze eskasa izan dute. Hori esatea betikoa aipatzea da.

MCCk langileei aste osoa jai ematen die eta, ekainaren bukaera eguraldi oneko sasoiaren izaten denez, askok eta askok kanpora alde egiten dute. Horrez gain,


Mondragón Unibertsitateak berak -eta iraganean, Eskola Profesionalak- azterketak jaien ostean jartzen ditu. Argi dago bi gauza horiek jaiak ez dietela mesederik egiten.

Bestalde, aurtun, jaiak luzeagoak izan dira. San Juan bezpera domekan izanda, egubakoitzetik eguen goizera arte luzatu dira jaiak. Horrez gain, zapatu eta

domekako euri zaparradek, aspaldiko partez, San Juane-tako hainbat ekintza kaltetu zituzten.

Astelehen, martitzen eta eguaztenean, arratsaldeko seiak artean, ia ez zirudien jaiak zirenik. Eskerrak umeei eta, batez ere, koadri-lei. Aurtun ere, azken horiei esker, San Juan eguneko giroari eutsi diote. Zorionak baita txosnei ere. Hemen izan garenok, tartean lana egitea tokatu bazaigu ere, ederto igaro dugu!

ASTEKOIRUDIA



GORKA ETXABE

IBERIAR PENINTSULAKO ZUHAITZ ESANGURATSUENETAKO BAT MONDRAGOEN

Azken egunetan jakin ahal izan dugunez, Iberiar Penintsulako zuhaitz esanguratsuenen artean, 28 Euskal Herrian ei daude, eta horietako bi Deba-goienean daude landatuta: bata Bergaran eta beste Arrasaten. Bergarako zuhaitza magnolia da eta Mondragoekoa, sekuaia. Sekuaia Monterron par-

kean dago. Zuhaitza sei metro zabal da eta 50 metro luze. Herritarrek ondo baino hobeto ezagutzen dute zuhaitz hori, beste gauza batzuen artean, Gipuzkoako altuena delako. Mondragón liburuan Juanito Leibarrek eta Jose Letonak aipatzen dute Arrasateko sekuaia. /X.U.

gorka ileapaindegia

ordutegia:

asteartetik ostiralera 09.30 - 20.00

larunbatetan 08.00 - 14.00

ferrerias, 35
arrasate

943 77 13 78

Gorka
ileapaindegia

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

KULTURA/ Industria Erakusketa iraunkorra zabaldu dute Arrasaten


Arrasateko eta ibarreko industriaren bilakaera ikusgai Saiolango eraikinean

UBANE MADERA

Joan den egubakoitzean inauguratu zuten Arrasaten Industria Erakusketa. 850 bat metro koadrotan, lau gunetan, XIII. mendeaz geroztik gaur egungo industria modernora iritsi artekoaren erakusketa da. Antzinako makinak, argazkiak... daude ikusgai.

Fagorren hasierako izena (50eko hamarkadan) Tagor zen. Baina, itxura denez, garai hartan, zultzaile makina enpresa bat ere bazen, eta haren izena ere "Ta"-rekin hasten zen. Hori ez zen legezkoa. Aldiz, Arrasateko Tagor enpresakoek eginda zituzten Tagor izenarekin makinetan izena ipintzeko xaflak. Jakina, xaflak aldatzea gaitza zen. Orduan, Luis Usatorreri bururatu zitzaion, hasierako "T" hizkiari beste murratxo bat gehituz gero, "F" bihurtu eta arazoa konponduta zegoela. Eta horrelaxe jai zen horren ezaguna den Fagor izena.

Hala kontatu ziguten sortzaileetako hiruk: Jesus Larrañagak, Alfonso Gorroñoigoitia eta Jose Maria Ormaetxeak. Beste hainbat lagun artean, Industria Erakusketa inaugurazioan izan ziren hirurak. Izan ere, kooperatibak erakusketa zati garran-



Ezkerretik hasita, Jose Mari Ormaetxea, Alfonso Gorroñoigoitia eta Jesus Larrañaga, Fagorrek sortu zituen lehenengo sukalde eta berogailuekin: Loretta, Dorothy...



Antzinako argazkiak, film zaharrak, makinak... Denetarik dago ikusgai Saiolanen.

tzitsu dira. Haien sorrera eta garapena dago azalduta, baita euren produktuak ikusgai ere: Loretta, Dorothy, Maite eta Fabiola izena duten petrolioeko sukaldeak eta berogailuak, adibidez, 50eko hamarkadakoak, Fagor izenarekin egindako lehenengoak.

AZKEN ERREMENTARIAREN LANTEGIA

Unión Cerrajería enpresaren egoitza nagusia izandako eraikinaren bigarren solairuan dago erakusketa. Zelanbait, Arrasateko industriaren ibilbide historikoa da. Baina, oro har, beste proiektu zabalago baten barruan dago kokatuta: Debagoieneko Industria eta Teknologien Interpretazio Zentro-Museoaren barruan. Hain zuzen ere, egitasmo horren oina-

rri eta abiapuntua da erakusketa. Hori dela eta, Industria Erakusketa ez da behin-behinekoa, iraunkorra baizik; hari eta egin gura duten zentro-museoa sortu arte.

Lau gunetan dago banatuta erakusketa: lehenengoan, Arrasateko altzairuaren garrantzia aztertu dute. Burdingintza tradizionala, burdinolak, lantegi txikiak... Tartean, Arrasateko azken errementariaren, Bixente Barandiaranen, lantegia berregin dute. Bigarren gunean, industrializazioa aztertu dute. Hau da, industria modernoaren sorrera (UCEM, bereziki). Sarrailak, makinak... denetarik dago. Baita Cerrajeraren maketa interaktiboa ere, dagoeneko existitzen ez diren eraikinak kanpotik zein barrutik

ikusitako izateko. ELMAK, ASA-Mek... ekoiztutako produktuak ere ikusgai daude.

Bestalde, lehen esan bezala, kooperatibaren ibilbidean barneratuta, gaur egunerainoko ezauzgarrietaraino iritsiko gara hiru-garren gunean: domotikaraino, hortaz. Eta, laugarren gunean, aurrerantzean egin gura duten museoaren proiektua aurkeztu dute.

AURKEZPENA ETA INAUGURAZIOA

Esandako moduan, joan den egubakoitzean inauguratu zuten erakusketa. Han izan ziren, besteak beste, alkatea, Udaleko ordezkariak, Eusko Jaurlaritzakoak, eta, bereziki, erakusketa antolatzen lagundu duten herritar ugari.

Debagoieneko Museoa


Hasieran esan dugunez, Industria Erakusketa asmo handiago baten barruan dago kokatuta: ibarreko Industria Museoan. Gure ibarraren industria eta bilakaera sozio-ekonomikoaren historia eta gaur egungo berrikuntzak eta aurrerapenak herritarrengana gerturatzea da Debagoieneko Industria eta Teknologien Interpretazio Zentro-Museoaren helburua. Hain zuzen ere, eta Xabier Zubizarreta alkateak adierazi zuen moduan, iraganean egindakoak zergatik, zelan... egin diren aztertu

eta jendearen artean hausnarketa sorraztea da helburua, guztiok ikasteko. Baina, museoaren sortu artean, Saiolango erakusketa izango dugu. Martitzenetik domekara egongo da zabalik. Martitzene-tik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta jaiegunetan, 10:00etatik 14:00etara. Urritik aurrera, gainera, eskolekin, hirugarren adinekoekin, enprekin... bisitaldi pribatuak antolatzeko asmoa ere badute.

Astelehenean pasatuko da Arrasatetik AHTren aurkako martxa

UBANE MADERA

Domekan hasiko da "Euskal Y"-ren barruan egin gura duten Abiadura Handiko Trenaren kontrako bizikleta ibilaldia. Tren horrek kaltetuko dituen herriak zeharkatuko ditu martxa horrek, Gasteizen hasi eta Bilboraino. Astelehenean iritsiko da Arrasatera.



Abiadura Handiko Trenaren egitasmoa aurrera doala gogorarazi gura dute.

Domekan hasi eta datorren zaptura arteko izango da bizikleta-ibilaldia. AHT Gelditu! Elkarlanak antolatuta, helburua da "esatea Abiadura Handiko Trena badatorrela, nahiz eta jendeak ezetz pentsatu. Aurrerapausoak ematen ari dira. Udan, lanen proiektua egiten hasiko dira eta datorren urtean, lanak hasteko moduan izango dira". Hala adierazi zuen Iker Ezpeletak, AHT Gelditu! Elkarlaneko kideak, Arrasate Irratian.

diari amaiera emateko, manifestazioa egingo dute Bilbon.

ARRASATEN, ASTELEHENEAN

Astelehenean iritsiko da Arrasatera. Legutiotik irtengo da eta, Eskoriatatik eta Aretxabaletatik pasatu ostean, Untzillara joango dira bazkaltzera, 14:00etan. Aramaiora joango dira bazkalostean, eta Garagartzatik sartuko da Arrasatera. 17:30ean, ongi-etorria egingo diote Udala plazan eta,

oinez, Seber Altubera joango dira, txalapartariak, malabaristak eta danborrariak lagun. Gero, Bergarara abiatuko da ibilaldia.

Iker Ezpeletak esan zuen edozeinek parte hartu ahal izango duela ekimen horretan: "Nahiko samurra da, horregatik hasi gara Gasteiztik Donostiarantz, aldapan behera da-eta. Eta, norbaiti zerbait gertatuz gero, laguntzen etorriko den furgonetak lagun-duko dio".

Kolektorearen lanek eraginda, berriro ere zirkulazio aldaketak

UBANE MADERA

Oraingo astean, berriro ere zirkulazio aldaketak izan dira Arrasateko zenbait auzotan, kolektorearen lanen ondorioz. Obenerrekan pilotalekutik gorako errepide zatia itxi dute eta Santa Teresa auzoan Santa Teresa eta San Esteban del Puerto kaleen arteko zatia.

Hain zuzen ere, Obenerrekan Gipuzkoa etorbideetik oinezkoen

pasealekurainoko zatian bukatu dituzte lanak; hortaz, zati hori zabaldu egin dute eta ibilgailuak Santa Marinatik pasa daitezke.

Santa Teresa auzoan, berriz, San Isidroren eta Institutuaren arteko lanak bukatu dituzte; zati hori zabaldu eta orain, Santa Teresa eta San Esteban del Puerto kaleen arteko zatia itxi dute. Hortaz, hor ere ibilgailuak desbideratu egin behar dira.


Ibilgailuen joan-etorriaz gain, lanok zaborren bilketan eta hiri

autobusaren geralekuetan ere dute eragina. Batetik, zaborrak batzeko, Udalak edukiontzia ipini ditu behin-behineko lekuetan, lanak amaitu arte. Amaitu ostean, berriz, edukiontzia behin betiko ipiniko dituzte aipatutako auzoetan. Hain zuzen ere, horregatik Udalak ez ditu orain arte edukiontzirik ipini han.

AUTOBUS URBANOAK

Autobus urbanoari dagokionez, Angel Marcok, Leintz Garraioen kudeatzaileak, jakinarazi digu Santa Teresa, Cristo Obrero eta Obenerreka zeharkatzen dituen 2 linean izan direla aldaketak. 08:00etatik 20:00etara, Santa Teresa eta Cristo Obrero kaleetako geralekuak Galiza kalera aldatu dituzte, 1. linearen geralekuen parera. Obenerrekakoa, berriz, aldapan gora segituz, 1. linearen geralekuen parera aldatu dute.

20:00etatik 22:00etara arteko urbanoa, berriz, ezin da Galiza kaletik pasatu, beraz, geralekuak honakoak dira: Santa Teresakoa apurtxo bat beherago, Institutuaren sarreraren bihurtunean; Cristo Obrerorena Obenerrekako oinezkoen pasealekuen zubi inguruan. Eta Obenerrekakoa Jose Luis Iñarra kalearekin elkartzen den lekuan ipini dute.



UBANE MADERA

Obenerrekan lehenengo zatiko lanak bukatu dituzte.

LABUR

Zoritzarreko azkenaldiko ohiturari jarraituz, Arrasaten ere diru-zorro lapurrak ibili dira

Azkenaldian, ohikoa da jaietan diru-zorro lapurrak azaltzea. Horrenbeste jende elkartzen den tokietan errazagoa da-eta lapurtzea. Horixe erakutsi ziguten orain dela gutxi Bergarako jaiek, eta orain, Arrasatekoek. Egia esan, Arrasaten ez da Bergaran beste-ko lapurretarik izan, baina, adibidez, ordubete eskasean 20 diru-zorro lapurtu zituzten San Juan bezperako gauean Ostantz tabernan. Kontua da, bereziki, neska-mutil gazteek poltsa eta berokiak edonon uzten dituztela, eta hori aprobetxatzen dute lapurrek.

Presoen eskubideen alde, Noizko? Eguna izango da domekan Arrasaten

Domekan, presoen eskubideen aldeko eguna egingo dute Arrasaten. Noizko? taldeak deituta, legeak esaten duen moduan baldintzapeko askatasunean izan beharko lirakeen presoen aldeko eguna da. Besteak beste, aske beharko luketen presoen senitartekoak etorriko dira Arrasatera. Horrela, eguerdiko hamabiak eta erdietan ongi etorria egingo diete plazan eta gero, kartelada mugikorra eta isila egingo dute. Bukatutakoan, triki-poteoa izango da herriko tabernetan, eta 14:30ean, herri bazkaria Seber Altuben. Bazkarira joan gura duenak Irati eta Etxerat tabernetan erosi beharko ditu txartelak. Horrez gain, herritarren eta bestelakoen atxikimenduak ere ari da batzen Noizko? taldea.

Eugenio Barrutiabengoa arrasatearra ez estraditatzearen aldeko mozioa onartu dute

Joan den barikuko osoko bilkura berezian, besteak beste, Venezuelan dagoen Eugenio Barrutiabengoa ez Espainiaratzeko eskatzen zuen mozioa onartu zuen Udalbatzarrak. Euskal Herriaren kontrako errepresio estrategia salatzearekin batera, errefuxiatuen izaera politikoa aldarrikatu zuten. Mozioa Batasunaren, EAren eta EBren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin onartu zuten. Hori bai, EAJk ere arrasatearra bakean uzteko eskatu zuten.




Euskararen Plan Estrategikoa, aurkeztuta

Iaz, azaroan, hasitako lanaren emaitza aurkeztu zuten joan den egunean Amaia Udal Antzokian. Arrasaten euskalgintzan dabil-tzan 14 elkartek herriko esparru guztietan euskaraz normaltasunez bizi ahal izateko aukerak bideratu gura dituzte. Eta, hori lortzeko, gizarteko arlo estrategikoak euskalduntzeko plana egin dute. Besteak beste, lortu gura dutena da "euskararen ezagutza bermatzea eta erabilera sustatzea, gizabanakoengan eta gizartean, ahalik eta hizkuntz kalitate handienarekin". Plana garatzeko, Jarraipen batzordea eratu dute.



EUSKARA BULTZATZEN

Ikasturtea amaitu da dagoeneko, baina badira ikasturtean barrena euskara bultzatzeko gogor lan egin dutenak. Adibide garbia Mesedeetako Andra Maria Ikastetxeko Euskal batzordeko lagunak dira. Besteak beste, Euskal Astea antolatu zuten, *Euskara ahoan eta jolas giroan* telopean. Ekintza mordoa egin zituzten. Besteak beste: pailazoak, herri kirolak, kontzertuak, antzerkiak...



SAN JUANEN AURRETIK, PAILAZOAK

Joan den egubakoitzean, Ibai Arteko hileroko sari banaketarekin batera, pailazoak izan ziren herriko plazan. Arratsaldeko zazpi eta erdietatik aurrera herriko plazara hurreratu ziren umeek ederto pasatzeko aukera izan zuten. Pailazoek

ikuskitzunerako boluntarioak behar zituzten, eta umeek ez zuten duda izpirik izan. Egin beharrekoak egin eta gero, taula gainera igo zirenak sariak izan zituzten. Umeek bikain pasatu zuten, horrelako ekintzak ez dira-eta egunero izaten.



ERLEAK PABLO URANGAN

Joan den astean, Pablo Urangako bizilagun batzuek buruhauste ederra izan zuten. Lehenengo solairuko leiho baten erleek erlategia egin zuten; leku aproposa izango zen. Azkenean, kostata, baina lortu zuten erlategia leihotik kentzea. Ez da lehenengo aldia Pablo Urangako etxeetatik erlategi bat kentzen dutena. Bizi izateko leku erosoak izango da.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

CLUB IYOLA

Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



XABIER URZELAI

Koadrila artoke pilota partiduetan giro polita izan zen, eta parte hartzaile guztiek izan zituzten sariak.

PILOTA

Zapatuan, pilota partidu asko baina ikusle gutxi Uarkape pilotalekuan

Arrasatearrek gurago izan zuten pilota-gosea eskuz banako finalarekin asetzea

XABIER URZELAI

Joan den zapatuan, nahi beste pilota partidu izan ziren, baina Uarkape pilotalekura ez zen jende askorik hurbildu. Goizean, Klub Artoke San Juan saria jokatu zen; eguerdian, Koadrila Artoke Txapelketa; eta arratsaldean, pilota jaialdia izan zen.

Zapatu goizean, Klub Artoke San Juan saria jokatu zen eta benja-

min, alebin eta infantil mailetako pilotariak izan ziren. Benjaminetan, eskoriatzarrak nagusitu ziren. Alebinetan, Azkoitiko pilotariak izan ziren onenak, eta infantil mailan, berriz, Arrasatekoak nagusitu ziren.

Eguerdiko hamabietatik aurrera, Koadrila Artoke Pilota Txapelketa jokatu zen. Garitaonaindia anaiak Keparen eta Gokoren kontra jokatu zuten hirugarren eta laugarren postuak era-

bakitzeko, eta Garitaonaindia anaiak nagusitu ziren, 22-11. Gero, finala jokatu zen: Txorik eta Urtzik Iñigoren eta Isturitzen kontra jokatu zuten, eta Iñigo eta Isturitz nagusitu ziren, 22-10.

Arratsaldeko seietatik aurrera, pilota jaialdia izan zen, eta Kokak eta Patxi Ruizek 22-12 irabazi zieten Aimar Olaizolari eta Zearrari. Partidua ez zen oso ikusgarria izan, Aimarrek eskua min hartuta zeukala jokatu zuen-eta.

San Juan jaietako Xake Txapelketan Luis Angel Ortega izan zen onena

X.U

San Juanetan Partida Azkarretako Xake Txapelketa jokatu zen, eta berdintasuna izan zen nagusi. Guztira, hogeita lau xakelari izan ziren, eta Arrasateko taldeko Luis Angel Ortega izan zen onena.

Aurtengo San Juan jaietako Xake Txapelketa inoiz baino parekatuagoa izan da. Txapelketan oso

maila altua izan zen. Arrasate Hiria Txapelketan eta Txapelketa Irekian parte hartu duten xakelariak jokatu zuten, baina horrez gain, xakelari gonbidatuak ere izan ziren.

Hogeita lau xakelari izan ziren, eta horietako hamabi nazioarteko rankingean daude. Arrasateko taldeko xakelariak maila polita erakutsi zuten, eta txapelketako onena Luis Angel Ortega izan zen. Bigarren Fran Miguel

aretxabaletarra izan zen eta hirugarrena Arrasateko Xake Taldeko beste xakelari bat izan zen, Txema Hernando, hain zuzen.

Txapelketa amaieran, Arrasate Hiria Xake Txapelketako, Txapelketa Irekiko eta San Juan jaietako Txapelketako sariak banatu zituzten. Datozen hilabeteotan, hainbat xake txapelketa izango dira, baina Arrasateko San Andres Taldeko xakelariak atsedean hartuko dute.

Jon Aperribai zortzigarrena Donostiako Triatloian

Jon Aperribaik lan polita egin zuen joan den astean jokatu zen Donostiako Triatloian. Arrasatearra zortzigarren iritsi zen helmugara (2:03:11). Txapeldunak baino zortzi minutu gehiago behar izan zituen arrasatearrak proba egiteko. Zuhaitz Ezpeletak ez zuen proban eskurik hartu, besoa min hartuta du-eta. Bedoñakoa ez zen triatloian egon, baina ezin esan geldi egon zenik, arrasatearrak Hiru Handiak mendi martxa amaitzea lortu zuen-eta. Taldeka, Antxintxika Debagoiena Taldea hirugarrena izan zen, Excelent eta A.SS.Liberto taldean atzetik.

BESTE BEHIN, LLANOS ANAIK


Donostiako Triatloian Llanos anaiak izan ziren protagonista nagusiak. Gasteizko anai horiek batera egin zuten proba guztia, eta helmuga ere batera gurutzatu zuten. Hala ere, norbaitek izan behar zuen txapelduna, eta Hec-

torrendako izan zen txapela segundo bateko aldegatik. Aurtan ere Excelent taldeko atletak bikain ari dira. Irabazlearen denbora 1:55:40 izan zen.

Joan den urteko txapelduna, Graig Watson, hirugarren iritsi zen helmugara. Emakumeei dago kienez, berriz, Virginia Berasategi bizkaitarra izan zen lehena; Virginia Berasategiren denbora: 2:13:07.

Oraingo asteburuan, ekaineko azken triatloia jokatu da, Lekeitiokoa, hain zuzen ere. Edozelan ere, denboraldia amaitzeko oraindik hilabete luze geratzen da. Uztailean, beste lau triatloi jokatu dira. Beasaingoa, Barakaldokoa, Gasteizkoa eta azkena, Eibarko Triatloia. Arrasateko atletek maila polita erakutsi dute orain arte jokatu diren triatloietan, eta Antxintxika Debagoiena Taldea ere goiko postuetan izan da. Ea maila horri eusten dioten uztailean ere.

FOTOKIROLA



Emakumeendako Eskalada ikastaroa

Ekain amaieran, emakumeendako Eskalada ikastaroa izan zen Araotzen. Emakume Sailak antolatuta, hamahiru emakume izan ziren eskaladako lehen urratsak ematen, eta ikastaroa oso arrakastatsua izan zen, izan ere, hainbat emakume kanpoan geratu ziren, lekuri ez zegoelako. Oso giro ona izan zen, bero larregi akaso, baina Araotzera hurreratutakoek ondo baino hobeto pasatu zuten. Lehenengo eguna izan zen, baina Arrasateko emakumeek trebezia ederra erakutsi zuten. /X.U

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Iban Galán arrasatearra Euskadiko Txapelketan lehena izan zen taldeka

XABIER URZELAI

Arrasateko karateka gazteak Euskadiko Txapelketa eskuratu zuen joan den ekainaren 16an, kadete mailan. Arrasatearrak Euskadiko Selektzioarekin jokatu zuen txapelketa, taldeka, eta Euskadik lehenengo postua eskuratu zuen, Madrilgo eta Asturiasko selektzio indartsuen aurretik.

Iban Galánek denboraldi biribila egin du aurten. Espainiako Txapelketan hirugarren izan zen, eta ekainaren 16an izandako Euskadiko Txapelketan lehenengo postua eskuratu zuen, taldeka. Euskadiko hautatzaileak, Espainiako Txapelketarako egin zuen moduan, Arrasateko karateka hautatzea erabaki zuen, beste hamahiru lagunekin batera.

Selektzioan hamalau karateka egonda, hautatzaileak talde bi egitea erabaki zuen. Lehenengo taldean gorpuzkera eta indar handiko karatekak sartu zituen. Bigarren taldean, berriz, karateka txikiagoak sartu zituen, txikiagoak baina azkarragoak. Iban Galáni txiki eta azkarren taldean egotea tokatu zitzaion, eta azkenean, talde indartsuena zela erakutsi zuten arrasatearrak eta



XABIER URZELAI

Iban Galán, Saioako karateekin batera, egubakoitzeko entrenamenduan.

beste sei lagunek. Talde gaztea izaki, oso maila oneko karateken kontra neurtu zituen indarrak, eta Madril, Asturias edo Aragoiko selektzioak atzean utzi zituen.

LANEAN JARRAITZEKO ASMOAREKIN

Aurtengo denboraldia luzea izan da, bai Ibanendako bai eta harekin batera Saioa gimnasioan entrenatzen diren gainerako lagunendako ere. Oraindik ere hainbat entrenamendu saio egin-

go dituzte, baina datorren denboraldira arte ez dute inongo txapelketarik jokatu.

Hala ere, oporren ostean, berriro ere gorputzari egurra emateko asmoz etorriko dira Arrasateko karatekak. Ibanek, behintzat, argi dauka datorren urtean zer gura duen: "Aurtengo denboraldia oso ona izan da, eta datorren urtean aurten egindakoa gainditu gura dut. Eta horretarako egingo dut lan".

FOTOKIROLA



Arrasate hirugarren geratu arku tiroketan

Domeka arratsaldean, Arku Tiroketa Txapelketa jokatu zuten Zaldibarren, eta Arrasateko taldeaz gain, kanpoko hainbat talde ere izan ziren. Kirol hori hobeto ezagutzeko asmoz, herri-tar asko izan ziren txapelketa ikusten. Arku tiroketan onenak zornotzarrak izan ziren. Bigarren Durango geratu zen, eta arrasatearrak hirugarrenak izan ziren. Txapelketa amaitsu eta gero, Zaldibarrera gerturatu ziren ikusleek arku tiroketa praktikatzeko aukera izan zuten. /X.U.

FOTOKIROLA



Arrasateko koadrila nagusi Arrazolan egindako 'Gizon probetan'

Ekainaren 15ean, Arrasateko eta Arrazolako koadrila batzuek Gizon probak egin zituzten. Aurtengo lehenengo aldia izan da, baina ez da azkena izango. Guztira, zortzi proba izan ziren, eta Arrasateko lagunek bost proba irabazita eskuratu zuten kopa.

Probak goizeko zortzietan hasi ziren. Arrasatetik Arrazolaraino korrika egitea izan zen lehenengo lana, eta Arrazolakoak nagusitu ziren proba horretan. Horren ondoren, besteak beste, aitzur jaurtiketan, aizkolari lanetan, pilotan, harri jasotzaile lanetan eta sokatiran ere egin behar izan zuten. Arrasatekoak nagusitu ziren proba gehientsuenetan, baina hori gutxienezkoa da, elkartutako jende mordoia eta egon zen giro aparta izan ziren-eta eguneko protagonistak /X.U.

Besaide elkarteak bigarren geratu zen Hiru Handietan

X.U.

Arrasateko Besaide Mendi Elkarteak bigarren postua eskuratu zuen joan den asteburuan jokatu zen Hiru Handiak mendi martxan. Arrasateko taldeak 24 puntu eskuratu zituen, eta Gasteizko Mendi Elkarteak izan zen irabazlea, 26 puntuekin.

Joan den egubakoitzean, arrasatear askok hasi zuten Hiru Handiak mendi martxa, baina guztiak ez ziren helmugara iritsi. Proba gaueko hamabietan hasi zen, Zaldudonon. Guztira, 826 lagunek eman zuten izena, baina proban 764 parte hartzaile izan ziren. Badirudi batzuk damutu egin zirela eta gurago izan zutela etxean geratu. Mendizaleek 100 kilometro zituzten egiteko, eta tartean, Euskal Herriko hiru mendi altuenetako tontorretara igo behar ziren. Zortzi mila metroko desnibela dauka probak, eta parte hartzaile askok gura baino gehiago sufritu zuten.

BEROA PROTAGONISTA NAGUSI

Proba Zaldudonon hasi zen, eta lehenengo eginbeharra Aizkorriara igotzea izan zen. Aizkorri ez zen arazorik izan, baina Elgeara bidean, gauak aurrera egiten

zuen neurrian, mendizaleak nekea nabaritzen hasi ziren. Elgean geratu ziren lehenengo bi erretiratuak, eta Ventafrian beste 85 lagunek bertan behera utzi zuten proba. Hurrengo mendi tontorra Anboto zen, eta ordurako beroa zen protagonista.

Mendizale askok ederki sufritu zuten Anbotoko maldetan, eta beste hamar lagunek bertan behera utzi zuten proba. Anbototik Urkiolara jaitsi eta Otxandiorako bidea hartu zuten mendi martxakoek. Oraindik Gorbeia tontorra egin behar zuten, baina Otxandiora iritsita, lagun askok, nahikoa egin zutela pentsatuta, bertan geratu ziren. Denetara, 136 lagunek utzi zuten proba Otxandion.

GORBEIAN UNE GOGORRENAK

Proba amaitsu zuten parte hartzaile askok Gorbeia tontorretan bizi izan zituzten une gogorrenak. Kilometro gutxi falta ziren proba amaitzeko, baina beste 100 lagunek ezin izan zuten berriro ere Otxandiora oinez bueltatu. 432 parte hartzailek amaitsu zuten proba, 413 gizonezkoek eta 19 emakumezkoek, hain justu ere. Aurtengo proba arrakastatsua izan da, baina beste bi urte itxaron beharko da Hiru Handiak berriro ere egiteko.



Aurten ere herriko koadrilek San Juan jaiei bultzada handia eman diete. Koadrilek ahalegin berezia egin dute egunak eta gauak girotzen, eta eurek antolatutako egitarauak oso erantzuna izan du.

Jende faltan, umorea!

Herrian geratu direnen ahotan izan da San Juan jaietan jende gutxiago ibili dela. Urteroko kontu bilakatu da arrasatear askok kanpora alde egiten dutela. MCCK jai ematen du, eta sanjuanen aurretik asteburua izanda, kanpora joateko tentazioa izan dute askok.

Kanpotik, batez ere, asteburuan etorri da jendea. Ez dira jai jendetsuak izan. Egunean barrena koadrilak izan dira nagusi, eta iluntze aldera, herria berpiztu egin da egunero. Ekitaldiei dago-kienez, koadrilek egindako lana goraiatu beharra dago. Eurek girotu dituzte jaiegunak. Zapatu-

ko eta domekako euriak ekintzei kalte egin zien. Uarkapera aldatu zuten Dragoi Jana arrakastatsua izan zen, baina Monterron eta txosnaguneko kontzertuei kalte handia egin zien. Danborrada eta Erremerterri dantza euripean egin ziren arren, jende askok jarraitu zituen. Arrasate Musikal, Los

Pérez de Nochistlán mariachiak eta Euskadi Gazteko Disko Festak ere ikusle asko izan zituzten, baita tabernetako kontzertuek ere. Pilota partiduek ez zuten merezitako erantzunik izan. Osterantzean, su artifizialak, entzierroak... ondo egon ziren. Argazkiak: Ander Gil-enea eta ARRASATE PRESS.

*Eguraldi txarrak
nolabaiteko kaltea
egin zien jaiei,
zapatuan eta
domekan*



*Gurekin San Juanetan
eta urte osoan izan
zareten guztioi, mila esker.*

Bitori etorbidea, 16 • ARRASATE
Tel.: 943 71 24 33 Faxa: 943 71 23 43
WWW.hotelmondragon@hotelmondragon.com



SEKULA BAINO HOBETO Martitzenean izan zuten umeez egun handia, Eguzkilaruren etorrerarekin. Eta ondo asko ospatu zuten, gainera. Antolatzaileen esanetan, eguraldiak asko lagundu zuen. Bestetan baino askoz ere bero txikiagoa izan zen, eta umeez ez zuten bestetan moduan leher eginda bukatu. Giroa ere izugarria izan zen eta jendea oso animatuta ibili zela adierazi digute; baina, bereziki, umeen eta gurasoen parte hartze handia nabarmendu dute. Gainera, aurten, ume dezente geratu zen bazkaririra.



MARIACHIAK ARRASATEN Martitzenean, mariachiak izan ziren ikusgai Arrasaten. Arratsaldean, Arrasateko kaleetan ibili ziren Mexikoko musikarekin giroa alaitzen, eta gauean, Monterron parkean kontzertua eskaini zuten. Monterrongo parkea lepo bete zen, eta arrasatearrek, aurten ere, Los Pérez de Nochistlán mariachi taldearekin gozatzeko aukera izan zuten. Eguraldia lagun, giro aparta izan zen. Musika entzuteaz gain, dantza egin eta abestu ere egin zuten Monterronera hurreratutakoek.



ROCK MUSIKA, BARRA-BARRA Sanjuanetan zuzeneko rock musika barra-barra izan dugu herrian: Monterrongo parkean Doctor Deseo, Anger eta Numen; txosnen gunean, Cyprinidians, Akatz, Serial Number eta Jousilouli; gaztetxean, Kuraia, Etsaiak, Ileon eta EH Sukarra; tabernetan, beste talde batzuk; eta Arbolapetan, kamioi baten, Ekon taldea. Presoen aldeko kalejira baten ostean, ezuste moduan, kontzertu polita eman zuten Ekon taldekoek eta ume, nagusi zein gaztek gustura ikusi zuten emanaldia.



Olinpi-poteoan herriko koadrilen umore ona igarri zen.



Gure nagusien artean, herriko zaharrenak: Candido Moraleja eta Brigida Monje.



Euria izan arren, jaietako ekintza jendetsuenetakoa izan da Errementari dantza.




Arrasate Musikaleko Bandarekin musika goxoa entzun ahal izan genuen plazan.




Batek baino gehiagok dantza ederrak egin ditu Arrasateko kaleetan ibili diren txaranga alaiekin.



Sanjuanetan grafitiak ere ikusgai egon ziren Arrasaten.



Azken orduan, lekua aldatu arren, arrakasta izan du aurten ere Dragoi Janak.



Benetako Jacuzzi-a

Eraman plazerra zure etxera



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 • OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 • Faxa: 943 78 15 51



Izugarrizko jendetza erakartzen du herriko zaindariaren omenezko mezak.



Elorregitik makala ekarri eta tente-tente ipini zuten koadrilek herriko plazan.



Etengabeko zirimiriari aurre eginez, jende asko batu zuen Danborradak.



Iturriotz 4. ARRASATE
Tel.: 943 79 14 84



Bizitza
etengabeko
bidaia delako



Bidaiarako
eta narruzko
artikuluak



ELKARRIZKETA

ANE ARREGI ETA MAITE MENDIZABAL/IDAZLEAK

“Ordenagailuarekin baino gehiago, gurago dugu ipuinak eskuz idaztea”

ARRASATE IRRATIA

Ane Arregik eta Maite Mendizabalek sari bana jaso zuten Urruzuno Ipuin Lehiaketan. Ez dute ohitura handirik ipuinak lehiaketetara bidaltzeko, eta oso pozik daude, irailean European zehar bidaia egingo dutelako.

Baduzue ohiturarik horrelako lehiaketetara ipuinak bidaltzeko?

Maite: Ez daukat ohiturarik. Inoiz AEDko lehiaketetara bidali izan dut, baina horretaz aparte, ez dut ia beste inon parte hartu.

Ane: Eskolarako lan bana egin genuen, eta andereñoak esan zigun onak zirela eta Urruzuno Ipuin Lehiaketetara bidaltzeko. Askotxo iruditu zitzaigun, eta ez genuen ezer irabazterik espero.

Ane, zure ipuina zertaz da?

A: Lau orrialdeko ipuina idatzi nuen. Ipuinari *Zuk uste ametsak bete daitezkeela?* izena jarri nion. Umezurtz gelditzen den neska baten istorioa kontatzen dut. Neska hori lagun batekin bizi da, baina norbaitek laguna bortxatu eta hil egingo du. Hori gertatu eta gero, oso une latzak bizi izango ditu, baina azkenean, aurrera egingo du.

Eta Maite, zuk zeren gainean idatzi duzu ipuina?

M: Nire ipuinak *Hil berri gauean* izena dauka. Izar bat ilargiarekin maitemindu egingo da, eta aitak ez dio izarrarekin egoten utziko.

Eskolako lanak egin behar dituzuenean idazten duzue ala idazteko ohitura daukazue?

M: Noizean behin bai, baina, batez ere, eskolako lanetarako; bestela, gutxitxo.

A: Askotan, idazteko gogo sartzen zait, baina gero, azkenean, ez naiz horretan jartzen.

Ordenagailuaren aurrean idazteko ohitura daukazue ala paperarekin eta boligrafoarekin hobeto?

A: Nik neuk papera eta boligrafoa erabiltzen baditut, inspirazio handiagoa izaten dut.

M: Gainera, oraindik ez gara ordenagailuarekin idazten ohitu. Batzuetan, ordenagailuak umore txarreko eta urduri jartzen nau. Presa handiarekin banabil bai, bestela, gurago dut lehenengo eskuz idatzi eta gero ordenagailuan garbian egin.

Musika lagun duzuela idazten duzue, ala hobeto musika barik?

M: Hobeto musika barik, edo bestela, ingelesez edo gaztelaniaz. Euskaraz idazten banabil, ezin dut euskal musikarik entzun.

A: Nik musika lagun dudala idazten dut, baina komeni da



IKER BARANDIARAN

“Irailaren bukaeran, gazte taldetxo bat hamar bat egun Europa aldera joango gara”

musika lasai samarra izatea, baxu jartzea eta hitzak ez jakitea, jakina.

Zer gurago duzue, ipuina ala poesia?

M: Niri biak gustatzen zaizkit, baina, nire ustez, ipuinak idaztea errazagoa da.

Ane: Ni poesia idazten ez naiz batere ona, eta ez zaizkit poesiak gustatzen.

Ipuinak, aurretik, lagunei edo familiakoei erakusten dizkiezue? Zeintzuk dira kritiko gogorrenak?

A: Bai, nik, aurretik, gurasoei eta anaiari erakusten dizkiet, ea gustatu zaizkien.

M: Niri kritika gogorrenak aitak egiten dizkit: aspergarria dela, eta abar... (Barreak).

“Andereñoak konbentzitu gintuen ipuinak Urruzuno Ipuin Lehiaketara bidaltzeko”

Bakardadeak inspiratzen zaituzte?

Biek: Bai, bakardadeak nahiko inspiratzen gaitu.

M: Baita tristurak ere.

Urruzuno lehiaketako saria bidaia bat da, ezta? Konta egizue horren gaineko zerbaite.

A: Oraindik ez dakigu ziur noiz eta nora joango garen bidaian. Edozelan ere, badakigu irailaren bukaeran gazte taldetxo bat hamar bat egunerako Europa aldera joango garela.

Halako sariak aurrerantzean lehiaketa gehiagotan parte hartzera animatuko zaituzte, ezta?

M: Baietz uste dut. Baina nik oraindik ez dut hurrengo ipuinerako ezer pentsatu.



IKER BARANDIARAN

Karkabal elkarteko batzarkide batzuk, prentsaurrekoaren egunean.

Karkabal gastronomia elkarteak 25 urte beteko ditu

IKER BARANDIARAN

Karkabal gastronomia elkarteak 1977ko uztailaren 7an zabaldu zuten. Hortaz, aurten, Pablo Urangan kokatuta dagoen elkarte horrek 25 urte beteko ditu. Hori ospatzeko, Aste Kulturala antolatu dute.

Pablo Urangan dagoen Karkabal gastronomia elkarteak 25 urte beteko ditu uztailaren 7an. Urteurren berezi hori ospatzeko, bazkideek hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Are gehiago, elkartearen gaineko liburu bat ere egin dute, eta datorren astean kalean izango da. Liburuaren izena *Karkabal Elkarteak. 25 urte* da.

Karkabal elkartearen gaineko liburuak elkartearen historia gainbegiratu du, eta berrogeita hamar orrialdetan elkartearen ekintzak, pasarteak, txangoak

eta argazki mordoa aurkitu ahal izango dira.

ASTE KULTURALA

Uztailaren 2an, astelehenean, hasiko dira Karkabal elkarteko 25. urteurrenoko ekitaldiak. Egun horretan, 19:30ean, patearen gaineko berbaldia izango dute; Zubia Pateak enpresako ordezkari batek egingo du berbaldia; uztailaren 4an, egunean, 19:30ean, Kataideko txakolina egiten dutenek edari horren gaineko berbaldia egingo dute.

Uztailaren 6an, zapatuan, 11:00etan, Euskal Herriko Posta, Zigilu eta Txanponen erakusketari jarriko dute. Eta Aste Kulturala bukatzeko, uztailaren 7an, domekan, 11:00etan, batzar nagusia egingo dute. Horren ondoren, luntxa eta 14:30ean, bazkideen bazkaria. Bazkarian bertan aurkeztuko dute liburua.



Lezetxikin lanak egingo dituzte

Aurreko urteetan moduan, uztailean, kanpoko gazte talde bat auzolandegetan Lezetxikira garbiketa eta txukuntze lanak egitera etorriko da. Talde hori uztailaren 3an helduko da Arrasatera, eta bi astez ibiliko da lanean. Horrez gainera, Aranzadi elkarteko partaideek ere indusketa lanak egingo dituzte Lezetxikin uztailean. //B.

BEHEKOHOTELETIK

Jose Antonio Zarraoa

ARRASATE HOTELEKUE

XABIER URZELAI

Jose Antonio mondraguetarra da, baiñe 40 urte eukela, Nafarroa aldera juen zan emaztiakin, Mertxekin. Nafarruen nekazari lanetan ibilli zan. 1990ien, barriro Mondraguera bueltau zien. Jose Antoniok eta Mertxek herriko lehenengo hotela jarri euen: Arrasate hotela. Eta oso gustora dabitz.

Amets bat?

Euskal Herrixen pakien bizi, eta errekek garbi ikustie.

Eta amets txar bat?

Osasune galtzie.

Egin dozun azken biajie?

Berliñera, urtarrillien.

Txartel horixe, zeñei?

Askori. Askok merezi daue txartel horixe.

Eta gorrix?

Beste horrenbesteri.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Novecento / Rojo y negro / Johann Sebastian Bach.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Bixek. Danetik egin biher da. Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Dana. Neure herrixe da, eta neure lagunak be hamen dauket. Eta gaiñera, hamen bizi naz, hortan...

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Gauza asko daguz konponketako, baiñe... Erdialdien lorategi gehixago jarriko neuke.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Nik ez dot balixo lehendakari izeteko. Hala eta be, oin dauenak gauzak nahiko ondo egin dittuela uste dot.

Bizio bat?

Nik danetik egitten dot; edan, erre...

Mendi bat?

Kurtzeta eta Otxandixo aldie



“Arrasate hotelien jente interesante asko ezagutu izen dot, eta jente ezagun asko be bai”

gustetan jat.

Bizi izetera hiri batera juetekotan, nora?

Bilbora. Bizi-bizi dague hiri bat dala esango neuke. Bilbon danetik dago.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Asko daguz. Txarrena izeten da horrelako pertsona interesante batekin berba egitterakuen gauza asko ez ulerketie.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Neure lagunekin, edozeñekin, gaiñera.

Telebisiñoko programa bat?

Frantziako telebisiñoko Arte izeneko kataie.

“Norabide eta prisa barik biajauko neuke gustora. Lo nun egingo doten seguru jakin barik”

Eta irratikue?

Radio 2. Irrati klasikue da.

Hoteleko bizimodue gogorra da?

Ez, nik oso gustora egitten dot hamen lan. Txarrena da beti egon biher dala norbait hamen.

Zertan gastauko zeuke dirue gustora?

Biajetan. Norabide barik, eta iñungo prisa barik.

Hotel batetik pagau barik juetie errexa da?

Baietz esango neuke, baiñe guerien danok pagetan daue.

Ze biher dau Arrasate hotelak bost izar eukittekoko?

(Barriek). Bi besterik ez dauko, eta eurek be nahikue lan!

NIREBIDAIAHURA/ Diego García

Caracasera /2002ko urtarrilean eta otsailean

Caracasen izan zen bi hilabeteen, Venezuelen esanguratsuak diren hiru egun ikusmin handiz bizi izan zituen Diegok: urtarrilaren 23a, otsailaren 4a, eta otsailaren 27a, hain justu ere.

Urtarrilaren 23an, Venezuelako demokraziaren urteurrena ospatzen dute. Pérez Jiménez izan zen azken diktadorea. Egund, Chávezek ez dauka oraindik oso argi egund hori ospatu egin behar duten edo ez. Joan den urtean, egund hori ez ospatzeko deialdia egin zuen. Aurten, Venezuelako Eguna dela adierazi du.

Egund hartan, manifestazio handi bi egin zituzten Caracasen: Chávezen aldekoak bate-tik eta kontrakoak bestetik. Bazirudien sekulako istiluak izango zirela, manifestazio biak oso gertu zihoazen-eta. Diego, badaezpada ere, etxean geratu zen, baina guztion harridurarako, ez zen ezer gertatu.

Otsailaren 4a ere egund berezia da. Chávezek 1992an egin zuen estatu-kolpearen urteurrena da: Chávezen aldekoek ospakizunak egiten dituzte; kontra daudenak, berriz, egund horretan beltzez jantzen ei dira, eta etxeetako balkoietan zapi beltzak jartzen ei dituzte. Egund hartan ere ez zen inongo istilurik izan. Azkenik, otsailaren 27an, ‘Caracazoaren’ Eguna ospatzen dute, 1989an, Venezuelako gobernuaren kontra egin zuten matxinada gogoratzeko; eta egund hartan ere ez zen istilurik izan.

Diegori hangoek esaten ziotenez, harrigarria izan zen hiru egund haietan ezer ez gertatu izana. Izan ere, Venezuela ez da leku segurua: “Beisbol partiduak amaitzean, etxeko taldeak irabazi egin badu, jendeak tiroak botatzen ditu airera. Beste behin, merkaturan erosketak egiten genbiltzala, gizon bat moto batetik jaitzi eta beste gizon bat tirokatu egin zuen. Ondoko kalean gertatu zen”. Beste kultura bat da hangoa, beste modu baten bizi dira. “Etxola askotan, etxea egoera txarrean egonda, barrura sartu eta satelite bidezko telebista daukate askok”. Daukatean gastatu, horixe da venezuelar askoren pentsaera.

XABIER URZELAI



Kontraste handiko hiria da Caracas.



“Venezuelan gertatzen denaren informazioa manipulatu iristen da”

Monte
taberna

Mañako arrabala 2
Tel.: 943 79 20 56

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Banatzailak behar dira
lan poltsa bat osatzeko Arrasate Presserako

Izena eman 943 71 23 91 telefono zenbakira.

BALDINTZAK:

- 15 urte baino gehiago edukitzea.
- Euskaraz jakitea.

E, TXO!

GUREGAIAK / KONTZERTU BEREZIA GAZTETXEAN

Herriko hainbat musika taldek omenaldia egingo diote 'Txiri'-ri

IKER BARANDIARAN

Haritz Etxeberria *Txiri* orain dela sei urte hil zen. Urtero, haren lagunek omenalditxoak egiten diote. Gaur, kontzertu erraldoia antolatu dute gaztetxean, Iskanbila, Des-kontrol eta Zakarrak taldeekin.

Haritz Etxeberria *Txiri* Arrasateko gaztea Iskanbila taldeko abeslaria zen. Duela sei urte, Haritz auto-istripuan hil zen, eta urtero, haren lagunek omenalditxoak egiten diote. Aurten ere *Txiri*-ren omenezko kontzertua antolatu dute. Gaur, egubakoitza, izango da, eta Arrasateko hainbat punk eta *Oi!* taldek joko dute.

ZAKARRAK, ASPALDIKO PARTEZ

Esan bezala, gaur, gaueko hamarretatik aurrera, hiru taldek joko dute Arrasateko gaztetxean, hirurak ere, Arrasatekoak: Des-Kontrol, Iskanbila eta Zakarrak. Haritz hil eta gero, Iskanbila taldeak aurrera jarraitu zuen, eta joan den aspaldian taldea geldi samar egon bada ere, gaur, kon-

Iskanbila, Des-Kontrol eta Zakarrak taldeek kontzertua emango dute gaur

tzertua emango du *Txiri*-ren omenez. Iskanbilarekin batera, zelanbait esanda Iskanbila taldearen semea den Des-Kontrol taldeak ere joko du. Horrez gainera, 90eko hamarkada erdialdea ezkeroko kontzerturik eman ez duen Zakarrak taldea ere izango dira gaztetxean.

Bitxia izango da Zakarrak taldea berriro ere taula gainean ikustea; izan ere, Arrasaten *Oi!* musika egin zuen lehenetariko talde hori 80ko hamarkadan sortu zen. Maketa pare bat atera, eta, 1992. urtean, *Larga vida...* izeneko lana kaleratu zuen Zakarrak taldeak. Zoritxarrez, handik



ZAKARRAK

Zakarrak taldea 80ko hamarkadan sortu zen.

gutxira, taldea desegin zuten. Gero, 1995. urtean, Arrasateko gaztetxean egin zen jai baterakoa taldekide guztiak batu eta kontzertu berezia eman zuten. Ordu-

tik hona, ez dira guztiak batera taula gainera igo. Jaialdi berezia izango da, eta bitxia izango da Zakarrak berriro ikustea, ziur baietz.

GAZTE BULEGOAREN UZTAILEKO ORDUTEGIA

Gazte Bulegoak beste ordutegi bat izango du uztailean. Astelehenetan eta martitzenetan, goizeko hamarretatik ordu bietara eta arratsaldeko bostetatik zortzieta- ra egongo da zabalik. Eta eguaztenetan, eguenean eta egubakoitzetan, goizeko hamarretatik ordu bietara egongo da zabalik. Abuztuan, berriz, itxita egongo da.

SEXOLOGIA ZERBITZUAREN UZTAILEKO ORDUTEGIA

Udaleko Sexologia Zerbitzuak ere beste ordutegi bat izango du uztailean. Astelehenetan eta eguenean, goizez egongo da zabalik, hamarretatik ordu batera. Abuztuan, berriz, itxita egongo da.

KONTZERTUA GAZTETXEAN

Bihar, zapatua, 22:30ean, Ttakunpa taldeak kontzertua emango du gaztetxean. Ttakunpa taldeak txalaparta eta beste instrumentu batzuk erabiltzen ditu eta folk esperimentalak egiten du.

Ospatu gurekin

10.

urtebetetzea

ibai-arte

Saria zozketatu zeneko jaija Seber Altube plazan.



Ekaineko zozketaren irabazlea, Mertxe Gómez izan da. Zorionak!

Parte hartu **600 €** hileroko zozketan

Oraindik uztaileko saria falta da.

Sari-txartelak Ibai-arte komertzioan aurkituko dituzue



ARRASATE
Nere Abad
25ean, 22 urte. Urte askotarako! Txatxilikoak.



ARRASATE
Julen Agiriano
22an, 7 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Lander Galdos
30ean, 24 urte. Zorionak! TMT.



ARRASATE
Aratz Bergaretxe
Uztailaren 3an, 13 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Aitor Zeziaga
20an, 9 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Manex Villar
21ean, urtebete. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Aitor Moreno
19 an, 12 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Miren Jodar
21ean, 23 urte. Zorionak, cowboy! Koadrilakoak.



ARRASATE
Egoitz Zubizarreta
30ean, 24 urte. Urte askotarako! TMT.



ARRASATE
Itsaso Arana
26an, 6 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE
Juanita Fundazuri
24an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak. Batez ere, Ikeia, Danel eta Oihana.





ARAMAIO
Mirian Mondragón
23an, 28 urte. Urte askotarako!



ARRASATE
Izar Zeziaga
29an, 9 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



ARRASATE
Mari Mar Martínez
20an, 28 urte. Zorionak, celosa! Koadrilakoak.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera martitzena baino lehenago argazki batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Gazte ikastaroak

uztaila

argazkigintza

Uztailaren 3tik 22ra.
Astelehenetan eta asteazkenetan
18:30etik 21:00etara.

Matrikula: 30 €. Ikasle eta langabeak: 18 €
Izenematea: Gazte Bulegoan
Ikastaroa ASako lokaletan egingo da.
Plaza mugatuak
Irakaslea: Jon Ruiz de Zarate

irradi tailerra

Esataria eta lokuzioa

Uztailaren 3tik 24ra.
Astelehen eta asteazkenetan
19:00etatik 21:00etara
Irakaslea: Gaizka Bitoria
Tokia: Arrasate Irratian
Plaza mugatuak.

Matrikula: 30€, 15€ ikasle eta langabeentzat.
Izen ematea: Gazte Bulegoan

sabel dantza

Uztailaren 2tik 24ra.
Astearteetan, asteazkenetan
eta ostegunetan

Hastapen ikastaroa, goizez,
11:00etatik 13:00etara.
Sakontze ikastaroa, arratsaldez,
16:00etatik 18:00etara.
Matrikula: 30 €. Ikasle eta langabeentzat 15 €
Arrasate Musikalen.
Izenematea: Gazte Bulegoan
Plaza mugatuak
Irakaslea: Jaione Albeniz

autodefentsa

Emakume Gazteei zuzendutako
10 orduko ikastaroa.


Ikastaroa DOAKOA izango da.
Izen ematea: Gazte Bulegoan edo
Emakume Sailean



gaur egungo dantza

Uztailaren 1etik 12ra, goizeko taldea;
11:00etatik 12:30era.
Uztailaren 15etik 24ra, arratsaldeko taldea;
18:30etik 20:30ak arte.
Ikastaroa egunero izango
da epealdi horietan.

Matrikula: 30 €, Ikasle eta langabeak 15 €
Izenematea: Gazte Bulegoan.
Irakaslea: Saioa Ibañez.



Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko ekainaren 28a / 31. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Europako hizkuntzen gaineko I. Uda Ikastaroa



Henrike Knörrek Arabako euskararen gainean egingo du berba Aramaioiko I. Uda Ikastaroan.

UBANE MADERA

'Europako hizkuntzen inguruan: iragana eta oraina' izeneko ikastaroa antolatuta dute Aramaion. Uztailaren 1etik 5era, Europako hizkuntzak izango dira berbagai.

Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailak eta Aramaioiko Udalak, Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin, antolatuta dute ikastaro hori. I. Uda Ikastaroa da. Helburua, berriz, Europako hizkuntzen gainean argibideak ematea; historia-ikuspegiari oinarrituta, gaur egungo egoera aztertuko dute. Eta, bereziki, gertuen ditugun hizkuntzetan arreta berezia ipiniko dute. Ikastaroko irakasle eta Euskaltzaindiko kide Henrike Knörrek GOITBri adierazi dionez, "asmoa da aurkezten diren ikasleei eta etorriko diren irakasleei Europako hizkuntzen panorama erakustea". Henrike Knörrek gaineratu duenez, "batez ere, gure artean eta gure inguruan dauden hizkuntzak hobeto eza-

Ikastaro hori egiten duenari aukera askeko kreditu bi eskainiko dizkio
EHUK

gutzeko aukera eman gura dugu ikastaro horren bidez".

BEREZIKI, FILOLOGIAKO IKASLEENDAKO Henrike Knörrekin batera, beste hamabost irakasle ezagunek emango dute ikastaroa. Tartean, Koldo Zuazok, Jon Kortazarrek eta Joseba Lakarrak. Horrez gain, besteak beste, Salamancatik, Bartzelonatik edo Budapestik etorritako irakasleak ere izango dira. Edozeinek hartu ahal izango du parte ikastaroan; hori bai, bereziki, Filologiako ikasleendako eia da interesgarria.

Hasieran esan dugun moduan, astebeteko ikastaroa izango da,

astelehenetik barikura. Berbaldiek 50 minutu iraungo dute eta arratsaldean izango dira, lauretatik zortzi eta erdiak arte.


Ikastaro hori egiten duenari aukera askeko kreditu bi eskainiko dizkio Euskal Herriko Unibertsitateak. Horrez gain, parte hartzeagatik egiaztagirak ere eskatu ahal izango dira.

Izena emateko sei euro ordaindu beharko dira.

EUSKARA MOTAK

I. Uda Ikastaroan aztertuko dituzten gaien artean, aitzineuskara, Arabako euskara edo okzitaniarra eta nafar-aragoiera aztertuko dituzte. Baita Hispania zaharreko hizkuntzak zein Euskal Herriko gaztelania ere. Atzerrira begiraturuz gero, portugesa, edo germaniar, ugrofiniar eta eslaviar hizkuntzak izango dira berbagai.

Henrike Knörrek esan duenez, aurten Aramaion horrelako zerbait egiten duten lehenengo aldia bada ere, aurrerantzean horrelako ikastaro gehiago antolatzeko asmoa dute.



Aramaiotar dezente Hiru Handietan

Joan den zapatuan, Hiru Handietara (Aizkorri, Anboto eta Gorbeia) irteera antolatu zuten. Oinez zein lasterka, hiru mendirik egitea da proba horren helburua. Aurten, aramaiotar dezente hartu dute parte lehiaketa antzeko horretan. Eta saririk ez irabazi arren, aramaiotar bat iritsi zen lehena oinez joan zirenen artean. Aitor Arana 27 urteko aramaiotarra 16 ordu eta 47 minutuan egin zuen ibilbidea.

LABUR

Arragako auzotarrek San Pedro eta San Pablo eguna ospatuko dute

San Pedro eta San Pablo eguna da bihar, zapatua. Biak hala biak Arraga auzoko zaindariak dira; hortaz, bihar, auzotarrek jai antolatuta dute zaindarien omenez. Hasteko, eguerdiko hamabietan, meza izango da auzoan. Mezaren ostean, herriko Lagun Arteen dantza taldeak dantza-saioa eskainiko du; eta horren ondoren, trikitilarien txanda izango da. Trikitilarien doinuek lagunduta, auzora doazenendako luntxa emango dute. Iker Olaziregi auzo-alkatearen partetik, ondo pasatu bihar!

Jaietan izango den Tortilla Lehiaketan parte hartzeko deialdia egin dute

San Martin jaien barruan, Tortilla Lehiaketa antolatuta dute. Datoren zapatuan (uztailak 6) izango da, Bixente Goikoetxea plazan. Antolatzaileek jendea animatu gura dute lehiaketa horretan parte hartzera, bereziki, elkarte gastronomikoetako kideak. Era berean, komenigarria da parte hartu gura duenak lehenago Udalean abisatzea. Bestela, egun berean plazan agertzea ere posible da. Lehiaketa 12:30ean hasiko da. Leloa, berriz, Arabako patatie eta labeldun arraultzie nahastie eta irabaztie. Gero, egindako tortillekin pintxoak banatuko dituzte herriarren artean.

Bittor Mendialdua organo jotzailea sarituko du Landazuri Elkarteak

UBANE MADERA

Aramaioko Bittor Mendialdua organo jotzailea aukeratu du Gasteizko Landazuri Elkarteak aurtengo saritu. Kulturaren eta artearen alde egindako lana saritzea da Landazuri Elkartearen helburua. Armando Llanos eskultoreak egindako lana emango diote Bittorri.

Iaz, Aramaion, azken 50 urteotan herrian organo jotzaile lanetan aritzeagatik omenaldia egin zioten Bittor Mendialdua herriki-deari. Aurtun, berriz, Gasteizko elkarte batek emango dio saria. Izan ere, kulturaz eta arteaz arduratzen den Landazuri Elkarteak kulturaren eta artearen alde Aramaioko organo jotzaileak egindako lana saritu gura du; bereziki, "gure ohitura eta gure ondare musikala zabaltzeko egindako etengabeko eta irabazi asmo bako lanagatik" saritu gura du elkar-teak Bittor Mendialdua.

ESKULTURA BANA OPARI

Landazuri Elkarteak mota horretako sari bi ematen ditu urtean: bakarka egindako lanari eta taldean egindakoari, hain justu ere. Horrela, Bittor Mendialduarekin



UBANE MADERA

Gure ohitura eta ondare musikala zabaltzeko egindako etengabeko lanagatik sarituko dute Bittor Mendialdua.

batera, aurtun, Arabako Elkarte Belenistikoa ere sarituko dute, taldekako sarien barruan, hain justu ere. Horrelaxe erabaki zuen Landazuri Elkarteak 2001ean Oñan (Burgos) egindako batzarrean.

Batari zein besteari, Armando Llanos eskultoreak diseinatutako lan bana emango diete opari. Bittor Mendialduak adierazi digunez, "sariak ez dira gauza txarra, baina, hori bai, sorpresa hartu nuen honekin".

Landazuri Elkartekoei oraindik ez dute zehaztu noiz emango dioten saria, aurtun emango diotela esan diote bakar-bakarrik.

Bittor Mendialdua 17 urterekin hasi zen organoa jotzen Aramaioko parrokiari.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK	
Osasun etxea (bandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erteaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA


ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

ZINEGOTZI ALDAKETA

Joan den asteko osoko bilkuran landu zituzten gaien artean, zinegotzi baten aldaketa izan zen. Bixente Mondragón EAJko zinegotziak kargua utzi du, eta haren ordean, Mertxe Mondragón sartzeari proposatu zuten. Onartu egin zuten.



Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta leihoez gain:
mocketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

ERRETRATU ZAHARRA

Aramaiotik
Debara
Eibartik zehar

Aramaioarrak dira oraingo asteko argazki zaharreko protagonistak. Hain zuzen ere, Aramaioko nesken eskolako ikasleak. Gerra aurreko argazkia da. Debara joan ziren 1929. urteko ekaineko egun baten. Baina, Debara heldu aurretik, Eibarren geratu ziren, euren irakaslearen lagun batzuk agurtzen, eta, bien bitartean, irudiotako argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten.

Honakoak agertzen dira argazkian, zutik, ezkerretik eskumara: Miren Altuna, Esther Espartza, Miren Aiastui, Angelita Nafarrate, Teodosia Salaberri, Angeles Espartza, Miren Aginagalde, Mercedes Albizuribe, Jaione eta Begoña Kortabarria ahizpak, ezezaguna (Eibarkoa, irakaslearen laguna), Teresa Etxabe eta Norberto Jauregi, txangoan eraman zuten autobuseko gidaria.

Bigarren ilaran, ezkerretik eskumara, honakoak daude: Fernanda Letamendia, Maritxu Ibarguen, Angeles Boneta, irakaslearen Eibarko beste lagun bat, Julia Ibarrola Latasa



(Aramaioko eskolako irakaslea, nafarra zen), beste eibartar bat, Balbina Ugalde, Miren Nafarrate eta Balbina Kortabarria.

Eta, azkenik, eserita, ezkerretik

eskumara, honako hauek daude: Valentina Ormaetxea, Concha, Gregoria Irasuegi, Isabel Albizubide, Eulali Elortza, Maxima Altuna, Maritxu Iruñe, ezezaguna, Matilde


Errasti, Domeke Elexpuru eta Mertxe Muñoa.

Argazkia: Domeke Elexpuru
Urtea: 1929. urtea

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Otalora kalea
eta Seber
Altube

Otalora kalea asko aldatu da azken hogeita hamar urteotan. Egia esan, argazkiari bakarrik begiratuta, gaitza da Otalora kalearen eta Seber Altuberen gainean berba egiten ari garela konturatzea. Herritar asko erraz gogoratuko da garai hartan herriko inguru horrek zeukan itxurarekin, baina gazte arrasatearrek nekez antzemango diote ezkerreko argazkiari.



≈ 1965

Argazkian Seber Altuben zegoen azoka azaltzen da. Eskuinaldean dagoen etxea Gerraren etxea da.



2001

Eraikin bi horiek aspaldi bota zituzten, eta Otalora kalea zabalagoa da gaur egun. Oinezkoendako egiteak ere mesede egin dio.



Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa, 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

Olarte 7. Arrasate
Tel.: 943 79 90 43

Eskaintzen dizugu:

- Produktu dietetikoak
- Sendabelarrak
- Kirol dietetika
- Elikadura naturala
- Kosmetika naturala
- Dieta pertsonalizatuak

Eta gure espezialisten aholkularitza dietetiko osoa.



IKASTARO TRINKOAK ETA ERREKUPERAZIO-IKASTAROAK

uda honetarako

MULTIMEDIA-SISTEMA

- 09:00etatik 21:00etara, etengabeko ordutegia
- Mintzapraktika
- Ikasteko ordu mugarik gabe
- 17 urtetik gorakoentzat

2 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK TALDEKA

- Goiz eta arratsaldeko ordutegia
- Haurrak, gazteak eta helduak

IKASTETXEKO IRAKASGAIEN LAGUNTZA-ESKOLAK

- Matematika, hizkuntza, euskara, ingelesa




Donostia-San Sebastián

Zubieta, 26.
Tel.: 943 43 31 02

Vitoria-Gasteiz

Florida, 8A.
Tel.: 945 15 01 55



Arrasate
Araba Hiribidea, 4.
Tel.: 943 71 20 55

Oñati
Olakua, 14.
Tel.: 943 71 60 00



secretaria@cim-idiomas.com • <http://www.cim-idiomas.com>

Auto batekin amesten duzu
edozein egoera menderatu ahal izateko?



Opel Vectra berria. Zuretzat egin dugu
Gidatze Interaktiboko Sistema (IDS) berriarekin.



Opel. Ideia berriak . Auto hobeak.

Giauto

Olabarrena z/g. Tel. 943 76 33 44/46. BERGARA
San Andres Auzoa. 10D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE